

# EUSKARA IPAR EUSKAL HERRIAN



# LARRUN #246

# EZ DU ETORKIZUNA IRABAZIA, BAINA IRABAZ LEZAKE

EGILEA | MIKEL ASURMENDI

AZALA | JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY

ARGAZKIAK | DANI BLANCO

**A**RGIAren mendeurrena kari, euskarari buruzko mahai-inguru publikoa egin dugu irailaren 27an, Baionako Euskal Museoan, Ipar Euskal Herriko *Mintzalasai* elkartearekin elkarlanean. *Euskara Ipar Euskal Herrian, Euskal Elkargoa sortu ondoren* hizpide izan genuen. Solaskideak euskararen iraganaz mintzatu ziren, baina bereziki, gaur egungo euskararen egoera azaldu zuten, baita etorkizunari begira euskarak dituen ahalak edo eskasiak azpimarratu ere, itxaropenak eta etsipenak barne. Mahai-inguruaren ondorioetako bat hauxe izan da: aitzina begiratzeko baitezpadakoa dugu iraganean begirada pausatzea.

Mugarriak mugarri, hona horietako batzuk: duela 60 urte hasi zen Euskara Ba-

tuaren asmoa, non eta Ipar Euskal Herrian. 50 urte dira Seaska sortu zela. AEK-k, berriz, (Gau-eskolak) 40 urte bete ditu, baita euskal irratiek ere. Hamarkada horietan halaber, herri elkarte eta mugimendu ugari sortu dira.

Ondoren eratu ziren, Euskal Kultur Erakunde (EKE), Euskal Konfederazioa eta Euskararen Erakunde Publikoa (EEP). Horiek ere ari dira gaur egun. Euskal Konfederazioak euskararen aldeko elkarteak eta taldeak bildu ditu bereziki, Ipar Euskal Herriaren erakundetze bidean. Gaur egunera etorrita, 2017an Euskal Hirigune Elkargoa sortu zen, iraganaren eta geroaren arteko instituzio mugarrria. Bere zereginaz galdezka ekin genion solasaldiari.

---

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.663 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. HELBIDEA: ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA TELEFONOA: (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS INPRIMATEGIA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA DISEINUA: MAITANE GARTZIANDIA

2019ko urriaren 27a

---

■ **Euskal Hirigune Elkargoa 2017ko urtarrilean sortu zen. Zein da zuen aburuz, euskararen inguruan egiten ari den hizkuntza politika?**

**JEAN CLAUDE IRIART:** Lehenik eta behin hauxe oroitarazi behar da: Euskal Elkargoa sortu zenean, lehen unetik, instituzioak berak hizkuntza politikari lotutako eskumen bat hartzea adostu zuen. Hori izan da beharbada, hastapen-hastapenetik hartua izan den lehenengo erabakia, oso inportantea. Alabaina, horrek ez du erran nahi instituzio guztien ardura hartu duela, orain arte euskararen politika gidatzeko eskumen hori baino ez duela hartu baizik. Horiek horrela, Euskal Elkargoaren lana, berau osatzen duten herriek egin izan dutenarekin konparatuz baloratu behar da. Izan ere, Elkargoak eskumen hori hartu duenean, euskararen eskumenaren parte bat herriei hartu die batez ere, ez dio estatuari, ez departamenduari ez eskualdeari hartu [Akitania Erregioa]. Edonola ere, erabakia hartu zelarik herriek beraiek euskararen alde kudeatzen zituzten kompetentziak haiek ere lantzen segitu behar zutela erabaki zen, eta egiten ez zuten kasuan, Elkargoak behar zituela herri horiek gehiago lagundu.

Lehen erabakia hori izan zen, urte baten ondoren hartua izan zen -2018ko ekainean-, baita bi arrazoren ondorioz hartu ere. Batetik, Elkargoak biziarazi nahi zuen hizkuntza politika hainbat arlotan eta orientabide batzuk finkatuak izan ziren. Harrezkero, badago hautetsi bat, kabinete bat, zerbitzu bat, horri buruz lanean ari dena denbora osoz. Erran nahi baita, hori izaten dela prozedura normala edozein politika garatzean: eskumen bat hartzen delarik, urte baten ondoren definitua izan behar da.

Aldi berean, biziki inportantea da ere, arras sinbolikoa izanik ere: lurraldeetako hizkuntzak aitortuak

izan ziren, euskara hala nola gaskoa, eta haien aitormena ofiziala izan bazen ere, horrek ez du erran nahi ofizialtasuna eman zaienik. Ofizialtasuna eman zaie lurralde hizkuntza gisa. Hau da, printzipiozko jarrera bat izan da, zinez sinbolikoa, horrek ez baitie hizkuntza hauei, ez euskarari beraz, ofizialtasuna eskubidea ematen, ez legezkoa ere. Nolabait errateko, kolektibitateak euskara lurralde hizkuntza izatea nahi du eta onartu zaio.

**ENEKO BIDEGAIN:** Jean Claudek esplikatu du argi eta garbi zein diren Euskal Elkargoaren eskumenak, hau da, ez dira Frantziako Estatuak emandako eskumenak, baizik herriek nahi edo galde egiten dituzten eskumen gisako batzuk. Estatuak euskarari eman dio lurralde ezagutza, baina ez da hizkuntza ofiziala. Orduan, Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herri osoan euskararen egoera zein den ikusita, eta zer etorkizuna izan dezakeen egungo egoeraren arabera,



Eszerretik eskuinera: Eneko Bidegain, Jean Claude Iriart eta Marie Andrée Ouret.

# Mahaikideak

---



## JEAN CLAUDE IRIART

BAIONAKO UDAL HAUTETSIA ETA  
EUSKAL ELKARGOKO KIDEA

Baionan sortua, 1962an. Hiriburu herrian hazia. Guraso baxenabartarren semea. Euskara helduaroan ikasi zuen. Ekonomialaria da ikasketaz. Irakaskuntzan aritua izana. Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko kidea eta Garpent Kontseiluko zuzendaria izan zen, baita Euskararen Erakunde Publikokoa (EEP) kidea eta haren Kontseilu Nagusiak Baionan zuen sailaren arduraduna ere. Gaur egun, Euskal Elkargoko Batzorde Iraunkorreko kidea eta Baionako udal hautetsia da, Baiona 2014 taldearen izenean.



## MARIE ANDRÉE OURET

BAIONAKO LIBURUTEGIAN  
LIBURUZAINA

Suhuskunen sortua, 1970ean. Biga Bai guraso elkarteko lehendakaria da, irakaskuntza elebiduna eskola publikoan sustatzen duen elkartea. Ikasketak Bordelen eta Parisen egin zituen. Parisen bizi izan zen hamabi urtez eta Pauen ondoren. Parisko Euskal Etxeko kide izan zen. Sustraiak-Errroak elkartean aritu zen, eta bertan euskara klaseak eman zizkien heldueei. Euskal Herrian bizi da 2010az geroztik, Larresoron. Baionako Mediatekan egiten du lan, Bilketa.eus webaren ataria eratzten. Liburutegiko euskal funtsak agerian ezartzea da bere ardura.



## ENEKO BIDEGAIN

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO  
IRAKASLEA

Baionan sortua, 1975ean. Euskal idazle eta kazetaria da. Batxilergo arte ikastolan ikasi zuen eta gero Euskal Ikasketak egin zituen Baionan. *Ekaitza* aldizkarian hasi zen kazetari lanetan. 1999an *Euskaldunon Egunkaria*-n jardun zuen, *Berria* eta beste zenbait hedabideetan ere aritu zen ondoren. Doktoretza tesia aurkeztu zuen 2012an, EHU eta Bordele unibertsitateetan *Lehen Mundu Gerra Eskualduna astekarian* gaiaren inguruan. Bertso txapelketetan epaile lanak egin izan ditu. Egun Mondragon Unibertsitateko irakaslea da.



Mahai-ingurua Baionako Euskal Museoaan egin zen, Mikel Asurmendik moderatua.

iruditzen zait, Elkargoak duen botere maila ez dela aski hizkuntza politika egin ahal izateko. Hots, euskarak ez ditu behar onarpen sinbolikoak, euskarak behar ditu leku eta ezagupen osoa, eta ez bigarren mailako hizkuntza izatea.

Adibidez, duela 40 urte bideetan ez zegoen batere euskarazko seinalitkarik eta orain badu presentzia, beraz, urrats bat da. Alabaina, euskarazko seinalitika finagoa da, tipiagoa da. Eta aldizkari ofizialetan berdin, euskara gutxiago eta tipiagoa izaten da eta irakurtzeko zailagoa. Orduan, pentsatu behar dugu, euskaldunok bista hobetuz dugula, eta behar bada, AEK-k egin dezake kanpaina bat lema honekin: "AEK-n matrikulatu zaitez, okulistan gutxiago gastatuko duzu". Barkatu, seriooki orain. Karrika eta bideetako seinalitikak mezu bat helarazten digu egunero: "Euskara bigarren mailako hizkuntza da".

Iraganean, denbora batean, frantses hutsean zeuden seinaleak ezabatzen ziren, eta gaur egun bigarren mailan eta leku sinbolikoa eman diote leku euskarari. Niri umiliagarria iruditzen zait politika hori. Euskara urratsak ematen ari da irakaskuntzan, baina BABn, herritarren %20k baino ez du euskara ikasten esko-

letan. Areago, ikastoletan edo eskoletan euskara ikasten dute, baina eskoletatik kanpoko ekimen gehienak edo ia denak frantsesez dira. Orduan, mundu frantses batean, frantses hizkuntzak dituen neurriak

“

**LURRALDEETAKO  
HIZKUNTZAK AITORTUAK  
IZAN ZIREN, EUSKARA  
NOLA GASKOIA,  
BAINA AITORMENA  
OFIZIALKI IZAN BAZEN  
ERE, HORREK EZ DU ERRAN  
NAHI OFIZIALTASUNA  
EMAN ZAIENIK**

**JEAN CLAUDE IRIART**

kontuan harturik, gaur egun ez dut uste euskarak behar duen laguntza daukanik. Ez eta Euskal Elkargoak euskara teknikari batzuk lanean jarritik ere. Frantziak badaki nolako laguntzak ematen dituen eta noraino ezartzen dituen neurriak...

**MARIE ANDRÉE OURET:** Ni ez naiz Eneko bezain ezkorra. Iruditzen zait Euskal Elkargoa sortzea urrats handi bat izan dela. Duela bospasei urte ez genekien sortuko zenik ere, sekulako oztopoak zirelako, euskararen kontrako haizeak izugarriak ziren, baina hondarrean sortu da, eta horrek erakusten du politikoki ere gauzak aldatu ahal direla.

Elkargoak sekulako aukerak ematen dizkigu euskararen inguruan aritzeko, eta behar ditugu baliatu. Izan diren adierazpenak biziki inportanteak dira. Noski, euskararen ezagupena ofizial egin da, ez da euskararen ofizialtasuna erdietsi, baina bagenekien hori ezinezkoa zela. Beraz, horrekin kontentatu behar dugu. Hala ere, ezin da erran ezdeusa denik, eta sinbolikoki ere badu bere balioa, nire irudiko, xantza badugu, Kolektibitate hau inportantea da, [Ipar] Euskal Herriko lurralde osoa hartzen du, eta horri esker ematen ahal zaio euskarari politika bat. Hori ere asko da. Ikusi behar da noraino joan gaitzekin. Horrelako Kolektibitate potente batek badu ahala. Eskoletan ez dela bermatua euskararen presentzia? Ez dela aski? Nik uste dut Elkargoa oraino berria dela, eta eredugarria izanen dela herrirentzat, baita beste herri elkargoentzat ere. Ematen dituen urratsak eredugarriak izan daitezke haietaz, hala nola, hainbat lan arlotan ukitzen dituen eskumenetan, publikoari ekartzen dizkion zerbitzu guztietan, horiek guztiak gauza irabaziak izanen dira. Elkargoa aski ausart aritzen bada, aski urrun joan gaitzekin eremu horietan. Ni Baionako Herriko Etxean lanean ari naiz, eta ikusten dut zaila dela aitzina egitea. Baina lehen aldia da esparru horretan euskaraz aritzen garela, lehen aldikoz euskara hutsean bilkura bat egiten duzunean, arraroa da, baina gero emeki-emeki normalizatzen joaten da. Eta aitzina zoaz. Berdin ere, kultur animazio bat egiten duzunean. Beraz, bideak izan badira, eta guk urratu behar ditugu.

**J. C. IRIART:** Enekeri entzunik, agian komeni da hau argitzea: instituzio bakoitzak egiten du nahi duena bere kompetentzia eremuetan, eta hori behar dugu zinez argiki jakin eta hartu, hala baita. Hau da, egunero bizitzen dugun paisaia linguistikoan ikusi ahal ditugu instituzioek antolatzen dituzten zerbitzuak. Horien barnean daude, estatuak egiten dituenak, eskualdeko eta departamenduko sailek egiten dituztenak, baita herriko etxeek eta zerbitzu sozialek ere orobat. Eta orain badira, Euskal Elkargoak zuzenean egiten dituenak. Erran nahi baitut, eguneroko paisaia ez duela instituzio bakar batek kudeatzen. Euskararen erabilpenari dagokionez, bakoitzak kudeatzen du berak hautatzen duenaren arabera. Elkargoak badu posibilitatea berea egiteko, mementoz ezin dugu erran legeak permititzen duen guztia egiten ari dela, urratsak eman dira, inportanteak, eta orain arteko herri elkargoekin konparatuz, lehenenago baino aise gehiago egiten dela ohartu gara, eta badago gehiago egiteko. Marie Andréek erran bezala, tokian tokiko herri elkargoentzako eredu izan daiteke Euskal Elkargoa. Badirela, naski, gehiago egiten duten herriak? Bai. Baina gehienek Elkargoak baino gutxiago egiten dute. Bistan da, estatuak, eskualdeak eta departamenduak ez dute Euskal Elkargoaren erreferentzia izan behar, ez ereduak. Haientzat euskararen ereduak bestelakoa da, estatuarentzat (irakaskuntzan salbu) euskarak ez du tokirik eguneroko bizitzan. Eskualdeentzat eta departamenduentzat arras gutxi ere. Instituzio horiek ez dira Euskal Herriatik kudeatuta. Euskarak dituen mugak lotuak dira Euskal Herriak dituen kompetentziei. Egunen batean, Euskal Elkargoak kompetentzia gehiago eta garatuago izanen balitu, bada euskarari ahal edo laguntza gehiago eman liezaioke. Bat besteari lotua da, Euskararen mugak lotuak dira Euskal Elkargoak dituen kompetentziei.

■ **Bi jarrera ikusi ditugu. Politika posibilista egin daiteke, baina Bidegainen ustez horretan badago arriskua nolabait.**

**E. BIDEGAIN:** Niretzat, egiten den urrats orori nire *ongietorria*, baina, ez dugu itsutu behar. Konparaketa bat eginen dut: klima aldaketaren astea izan da berriki, manifestazio batzuk izan dira kari horretara, eta nola halako neurriak hartu dira. Baina, seriooki, zein neurri hartu dira? Ikasleek manifestazioa egin dute... Eta zer? Bestela litzateke auto pribatuen erabilpen greba egin izan balitz, ezta? Edota garraio publikoaren greba egin izan balitz, trenena, adibidez,



**ELKARGOAK DUEN BOTERE MAILA EZ DA ASKI HIZKUNTZA POLITIKA EGIN AHAL IZATEKO, EUSKARAK EZ DITU BEHAR ONARPEN SINBOLIKOAK, EUSKARAK BEHAR DITU LEKU ETA EZAGUPEN OSOA, ETA EZ BIGARREN MAILAKO HIZKUNTZA IZATEA**

**ENEKO BIDEGAIN**

bada Ipar Euskal Herria kolapsatua geratu izan liteke. Klimaren aldeko mobilizazioak deitzen dira, baina funtsean ez da deus egiten. Egoera hori euskarari buruzko politikarekin konparatu dezakegu: euskararen eremuan ere hartzen dira neurri batzuk, baina epe luzera begira betiere, orainean gure kontzientzia lasaia izateko. Gaur egun, frantses hizkuntzak daukan boterea kontuan harturik, globalizazio garaian, lasterka goaz, lasterketa horretan neurri tipi batzuek ez dute aski balio euskarak bizi duen larrialdi egoeran,

bizi duen mehatxu egoeran. Barkatu, egoera hain beltza ikustea, baina klimaren egoera bezain beltz ikusten dut euskararena. Itsasoaren maila metro bat igoko omen da mende honen amaierarako, euskara orduan bizirik izanen dela espero dut, alabaina oraingo neurriak soilik harturik ez dut uste luze biziko denik.

■ **Orain 60 urte, Euskara Batuaren hastapena izan zen, Ipar Euskal Herrian izan ere. 50 urte Seaska sortu zela. AEK-k (Gau-eskolak) 40 urte ditu, baita euskal irratiek ere. Erakunde eta mugimenduak herritik sortu ziren. Hala nola Euskal Kultur Erakundea (EKE). Euskaltzale batzuen iritziz, aro bat joan da, eta beste bat heldu. *Euskalgintza zaharra eta berria* artikulua agertu da prentsan. Aldaketarik ba al dago?**

**M. A. OURET:** Galdera zaila duzu hori. Nik ez dakit ere euskalgintza zaharra eta berria badenentz. Berria, agian zaharra naizelako. Eskola elebidunetan ez dakit dagoen, hasteko. Nik alderatzen baditut gure garaiko euskarazaleak eta egungoak, egun badago aise gehiago kontzientzia, jendea kontzientziatuago dago eta politizatuago ere bai. Konparazionera, Seaskan heziak izan diren gazteak usatuagoak dira mobilizatzen. Horietako asko Seaskako guraso dira gaur egun, horiek erakusten dute euskararekiko garai batean ez zegoen beste jarrera bat, euskararen egoeraren kontzientzia handiagoa dute. Gazterian denetarik dago, bistan da, baina beren desmar txak oso politikoak dira, baita egiten dituzten aktibitateak ere, ez dakit hori den euskalgintza berria...

Bestalde, Seaska eta eskola elebidunetako –publikoak eta erlijiosoak– familiak ez dira publiko bera, bistan da. Alta bada, Seaskan ikasleak ari dira emendatzen, 4.000 ari dira 1. eta 2. Mailan. Masa bat dago. Gero, bistan da, batekoak eta beste-

koak ez dira publiko bera. Nik eskola publikoan ikusten ditut bi mundu horiek. Eskola publiko eta erlijiosoe-tan, orokortu nahi gabe ere, ez dute baitezpada euskararen kezka bizia, haurrek ikasten dute gurasoek eus-kara jakitea plus bat dela ikusi du-telako, eta kito. Hori bada ere muga edo arazoa. Izan ere, anitz haur sar-tzen da irakaskuntza sistema horre-tan, geroz eta gehiago, ama-eskole-tan hautatzen dute eskola elebiduna, baina beren ibilbidea ikusirik, biga-rren mailatik goiti euskararen ikas-keta uzten dute. Egia erran, ez dago atxikimendu handirik, oportunitatez egiten den hautua da, bistan da, ez duzu hor atzemanen publiko mili-tante bat. Funtsean, eskolan badute euskararekiko lotura, baina kanpoan ez dute segidarik ematen.

■ **Erran dezakegu, hala ere, euskarak prestigio gisako bat irabazi duela.**

**M. A. OURET:** Prestigio gehiago baduen ez dakit, baina, bederen euskara erakargarriagoa da gaur egun, gure haur eta gazte garaian baino. Gurasoek hainbat arrazoiengatik hautatzen dute haurrak euskaraz eskolaratzea. Pentsatzen dute beste hizkuntzak ere errazkiago ikasiko dituztela, eta integratzeko molde bat bezala ere ikusten dute euskara ikastea. Horretan aitzinatzen ari gara.

**J. C. IRIART:** Euskalgintza berria? Iraganeko aldiak aipatu dituzu: du-la 30-40-50-60 urteetan herri el-karteak ziren bereziki euskararen aldeko desmartzetan engaiatuak. 1990etik instituzioak ere hasi ziren

horretan lanean, orduan ikusi geni-tuen euskararen aldeko lehen poli-tika instituzional batzuk egiten. Nik ez nuke erranen, euskalgintza zaha-rra, klasikoa eta berria dagoenik; euskalgintzan badaude elkar-teak, eta horiek ez dira tipitu ez aldatu, baizik eta eboluzio aski baikorra eman dute. Instituzioen esku-har-tzeak ez ditu ahuldu elkar-teen ahala eta engaiamendua, eta erran nezake, aldi berean, agertu dela euskalgin-tza publikoa.

Elkar-teak eta instituzioak ez dau-de elkarren aurka, eta euskararen aldeko indarrak hazten ari dira. Ins-tituzioak hasi dira euskara politika bat ezartzen. Aipatu garai haietan aurrekontuen aldetik ez zegoen diru iturri izpirik, hor aldaketa in-portantea eman da. Instituzio an-





dana batek elkarrekin egiten duten lana –gisa batez, euskalgintza publiko bilakatu dena– diruz laguntzen dute; hori azken 60 urteetan azkartu baizik ez da egin. Noski, euskararen alde eman diren urrats horiek guztiek ez dutela euskararen etorkizuna ziurtatzen ohartarazi behar dugu. Ezin dugu erran egoera zailetik atera garenik. Erran daiteke haatik, euskararen beherakada gelditu dela, egia da ere, biziki behean zegoela, eta beraz ezin dugu erran borroka hori irabazia dela. Orduan, behar dugu kontuan hartu egoera iluna dela, baina era berean badirela esperantza izpi batzuk. Ezin dugu erran euskarak etorkizuna irabazia duela, baina irabaz dezake. Heldu diren urteetan instituzioek eta gizarte berak zer egiten duten ikusi behar da, gizartean mugak daude eta instituzioetan ere bai. Denak prest bagina euskara ikasteko eta erabiltzeko, ez genuke instituzioen beharrik. Baina errealitatea ez da horrelakoa.

**E. BIDEGAIN:** *Euskalgintza zaharra eta berria* delakoari buruz bi hitz: gai hori Hegoaldean zabaldu da be-

tza zaharra deitzen den hori, Euskal Herri osoa kontuan harturik idatzi zuen Hegoaldeko iritziegile batek: AEK, EHE, Kontseilua, Ikastolen elkarteak eta beste talde batzuk hizpide izan zituen. Batzuek euskalgintza zaharra deitu hori krisi batean sartu dela diote, loaldi batean sartu dela, eta diotenez, zerbait egin behar da euskalgintza berri bat sortzeko. Bea Salaberrik horri erantzun zion nolabait. Ipar Euskal Herrian AEK-k eta Seaskak, esaterako, hainbat diru laguntza ukaten dute eta horiek ez balira izan, ez ziren aitzina aterako, hori azpimarratu behar da. Alabaina, dagoen diru politika laguntza ez da aski euskararen behar guztiei buru egiteko. Euskalgintza berriaren beharra aipatu da, eskuin ezker sortu diren talde batzuk kezkatuta daudelako euskararen egoeraz. Beharbada, “euskara eta euskalgintza politizatu” behar dela argudiatzen hasi dira. Adibidez, batzuen ustez, euskararen ofizialtasunak galdera edo eskaera politikoa izan behar du.

“

**EUSKARAREN EZAGUPEN OFIZIALA EMAN DA, EZ DA EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ERDIETSI, BAINA BAGENEKIEN EZINEZKOA ZELA. BERAZ, HORREKIN KONTENTATU BEHAR DUGU. HALA ERE, EZIN DA ERRAN EZDEUSA DENIK, ETA SINBOLIKOKI ERE BADU BERE BALIOA**

**MARIE ANDRÉE OURET**

reziki, ARGIAN Bea Salaberrik idatzi du horretaz, aurretik idatzitako artikulua bati erantzunez. Euskalgin-



■ **AEK, Seaska, EKE, Euskal Konfederazioa, Herriko Etxeak. Hainbat eta hainbat erakunde badira. Euskal Elkargoa sortu da, baina EEP ere bada, EKE... Akomeatzeko molderik ba al dago?**

**E. BIDEGAIN:** Euskararen ezaugarrietako bat elkarteen atomizazio hori da, instituzio horiena. Hala ere, euskararen aldeko elkarteak eta taldeak, funtzio ezberdinak dituzte, bakoitzak berea dauka, beraz, nik ez dut arazorik ikusten. Herriko Etxeen, Euskal Elkargoaren eta Euskal Konfederazioaren arteko zubia badago euskalgintzari dagokionean, eta euskara elkarteak eta taldeak ere zeregin horretan ari dira, baina, naski, batzuek diru laguntza dutelako eskuak loturik dituzte. Nire irudiko, denborarekin, Euskal Konfederazioan dauden hainbat taldeen presioa desagertzen joan da, iraganean presioa egiten zuten talde edota mugimendu horiek dirua ez zuten aintzat hartzen, kontra

-botere bat egiten zuten euskararen ofizialtasunaren alde. Gaur egun, bestiek, erakunde instituzionalen menpe lan egiten duten horiek, ez

la, nire gustuko, euskalgintzan hiru zango behar ditugu: instituzionala, erdi instituzionalak eta horietatik kanpo ari direnena.



**GERO ETA NONBRE  
HANDIAGOAN IKASTEN  
DUTE IKASLEEK  
EUSKARAZ, BAINA  
EZ NAHI ETA BEHARKO  
GENUKEEN NONBREAN  
EUSKARAREN KALITATEA  
ZIURTATZEKO**

**JEAN CLAUDE IRIART**

dute presio lana egiten ahal. Bereizketa bat eginen nuke hala ere, irakaskuntzan edo hedabideetan ari direnena, esaterako. Horiek horre-

■ **Irakaskuntza hizpide: eskola publikoak eta katolikoak, eta Seaskaren artean harremanak ba al dira?**

**M. A. OURET:** Harremanak badira. Euskal Konfederazioa aipatua izan denez, ohar bat: erakunde horretan elkartzen dira euskararen aldeko talde eta elkarteak, eta horiek diru laguntza ukaten dute, baina Euskal Konfederazioak berak ez. Beraz, ez du zailtasunik presiorik egiteko, badu gaitasunik. Alta bada, eragiten duen edo ez, hori beste gauza bat da. Beraz, Euskal Konfederazioaren baitan biltzen gara eskola elebidunak –publikoak eta katolikoak– Seaska biltzen den ber, eta badugu elkar aritzeko eta mintzatzeko gune bat. Azken urteetan hala ere, izan ditugu momentu batzuk aski larriak, bakoitza bere aldetik aritu izan gara. Adi-

bidez, Hezkunde Nazionalak erregularki ateratzen dituen erreformak kari –kolegioen erreformak direla eta bertze–, usu erreforma horiek eskolako sailak kaltetzen dituzte, bereziki hizkuntzetan eragiten dute, eta neurri kezkarriak izaten dira. Alabaina, une larriak izanki ere, elkartu gara eta ekintzak antolatu ditugu elkarrekin.

**J. C. IRIART:** Niretzat erakunde ezberdinen artean ez dago akomeatze-ko arazorik, ez dago problematika berezirik. Dena den, egia da, Euskal Konfederazioak nolabait gelditu du bere presio lana. Nik uste dut hori sentitzen dela, baina, nire irudiko, abilki jokatzeko ari da. Presioari buruz gehiago errateko, beste aro bat –aro berria, naski– ongi etorria litzateke, eta beste talde batzuek presio hori egin lezakete, eragin handiago izateko. Hori erranik ere, ez zait iruditzen euskalgintzan ari diren eragile handiak, AEK, Seaska eta abar, blokeatuta daudenik instituzio politikoan aldetik, diru-laguntza ukaten dutelako. Beren errebindikazioak pausatzeke autonomia atxikitzen dute, ahaltsuna badute, ez dira ahuldu horretan. Bistan da, mugak badira, alde batetik, gizartean, herritarrek presio handiago egingo balute, hautetsiek egin lezakete gehiago. Baina falta den presio hori Euskal Herriaz harago dauden instituzioei buruz egin beharko litzateke: [Pirinio Atlantikoak] departamendua, [Akitalia] erregioa eta estatuaren gaineko presioa, baina hori egia erran, nekeza izaten da. Ikusi besterik ez dago zer den Ipar Euskal Herria lurraldea Frantziako lurraldearen aldean. Bistan da, presio handiago egingo bagenu, horrek ondorio hobeagoak ekarriko litzuzke. Alabaina, ene ustez, oraingo legediak –bai Herriko Etxeetan bai Euskal Elkargoan– permititzen dituzten bide berriak ez ditugu aski urratu. Aitzinera egiteko posibilitateak badaude, aukera guztiak urratu behar dira.

**■ Duela 50 urte euskarak zuen espazioa eta egungoa bera al dira? Orduko euskararen *corpusa*, “izaera edo mamia”, aberastu da edo pobretu al da? Zertan aldatu da euskararen egoera?**

**E. BIDEGAIN:** Duela 50 urtera arte, euskara etxeko hizkuntza zen Iparraldean, laborantza munduan ziur, espazio publikoan ez zuen batere lekurik. Gaur egun, badu leku espazio publikoan eta anitzez gutxiago etxean, eremu pribatuan. Hori izan da aldaketa, baina eremu publikoan bere lekua sinbolikoa da, ez da aski euskarak jasan duen galerari aurre egiteko. Dena den, zehazkiago, euskararen *corpus*-ari dagokionez, euskararen gaia eta materiala aberastu



**KONTZIENTZIA HARTZEA  
BEHARREZKOA DA,  
ETA EUSKARA  
HIZKUNTZA OFIZIALA  
IZANGO BALITZ ERE,  
EZ LITZATEKE  
SALBATUA IZANGO  
ENEKO BIDEGAIN**

da, besteak beste, irakaskuntzari eta unibertsitateari esker. Euskarazko prentsari esker, egunero prentsa hor dago –ARGIAK 100 urte bete ditu: zorionak!–, *Berria* eta tokian tokikoak; literatura bestalde, eta abar. Naski, Iparraldean horiek beharbada ez dira hainbeste nabaritzen. Sorkuntza hori ez da erraz heltzen jendearengana. Adibidez, euskarazko film bat ateratzen bada, lehenago proiektua izaten da New Yorken Hendaian baino. Horrek Iparraldean prestigio pixka bat kenarazten dio euskarari. Halaber, alde batetik badago ekoizpen

handia, baina aldi berean, prekarioa. Euskararen ekoizpena hiztunen artean, Lapurdin bereziki, zorigaitzez, apala da. Euskararen transmisioaren etenak segitzen du. Lapurdin badago komunikatzeko gaitasunik ez daukan euskaldun kopuru aski handia. Hau da, jendea euskaraz edo edozein hizkuntzaz ez bada ongi moldatzen hiztegi eta gramatikarekin, hizkuntza horretan nekeza da eguneroko solasa gauzatzea. Orduan, euskaldun kopurua handitu da Lapurdin, baina ez du euskara maila aski eroso aritzeko. Erdizkako euskara batekin ezin da egin euskaldun komunitate sendo bat, gainera, badira euskara ontsa menperatzen dutenak, baina beren lana dela eta, Euskal Herriatik kanpo bizi dira. Beraz, sortzen den euskaldun anitz galtzen ditugu eguneroko harremanetan. Ondorioz, euskaldun anitz sortu dira baina bidean anitz galtzen dira. Euskararen *corpusa* badago, alde batetik, ekoizpen aberatsa erdietsi dugu, baina gisa berean, badago haustura bat. Beraz, besteak beste, literatura eta prentsa are gehiago sustatu behar dira.

**M. A. OURET:** Nik ezagutu dut euskara herri tipi-tipi batean, Suhuskunen [Baxenabarre]. Garai hartan, jende guztiak, suhuskundar guztiak, euskaraz ari ziren, denek bazekiten. Euskara ez zen ikasten, bazenekien edo ez zenekien. Euskara ez zuen nehork ikasten, halarik ere, euskara hura biziki mugatua zen, herriaren eremuan gelditzen zen, arrunt laborantzan. Jendea haien artean bizi zen, ez ginen batere alfabetatuta, baziren sekulako hutsuneak. Gaur egun, berriz, diferentzia handia da horretan, esker-tu behar da eskoletan egindako lana, besteak beste. Seaskatik ateratzen diren gazteak alfabetatuak dira, teoriarik bederen euskaraz mintzatzeko gai dira. Tresna linguistikoak badituzte. Aldiz, egia erran, eskolatik ateratzen direnean ez dira euskaraz ari, *belarri-prest* anitz bada, aldiz, duela 50 urte Suhuskunen denak *ahobizi* ziren.

ELISKARAZ  
BIZI



Ez dut inor kritikatu nahi, baina begiratzen dugu gure inguruan, nire lanean, eta maila eskasa dute gazteek. Masa kritiko baten beharra dugu, diotenez, arnas-guneak behar ditugu gure hizkuntzan bizitzeko, masa kritiko hiztun hori ez dugu erdie-tsi oraino, eta halaber, hiztun onak behar ditugu, euskaraz aritzeko eta erakusteko irakasleen maila duten hiztunak. Momentu honetan egoera kritikoan gaude, gauza batzuk irabazi dira eta beste batzuk galdu. Suhuskunen euskara bizi zen, mugatua, baina egun muga gutxiago dutenek ez dute euskara erabiltzen aski.

**E. BIDE GAIN:** Mari Andréek dioenaren ildoan, Joxe Manuel Odriozola saio-gileak bere azken liburu-etako batean ongi baino hobeto esplikatzen du hori: duela 50 urtera arte, estatu-nazioek, hau da, boterea zuten administrazioek esku-hartu zuten kontzientzia nazionalik gabeko herrietan. Konparazionera, laborantza munduan euskara bizi zen frantsesaren aldean, baina ekonomia aldatu zenean, industria eta hiriak zabaldu zirenean, baita he-dabideak azkartu ere, euskara gain-

behera etorri zen. Frantsesa estatuaren mailako hizkuntza bilakatu zen, administrazioan frantsesa –He-goaldean espainola nola– ezarri zen guztiz. Harrezkero euskarari ez zaio

“

**ERRATEN ARI NAIZEN  
GUZTIA FRANTSESEZ  
ERRANEN BANU,  
ENE ESPRESIOAK  
ZORROTZAGOAK IZANEN  
ZIREN, ENE HIZTEGIA  
ABERATSAGOA,  
ENE IDEIAK ARGIKIAGO  
EMANEN NITUZKE.  
EZ DUT USTE KASU  
BAKARRA NAIZENIK**

**JEAN CLAUDE IRIART**

nazio hizkuntzaren funtzioa aitortu, ez eman. Gizartearen antolaketa berria eman zenean, euskarak ez zuen ondoko hizkuntzen hein bera hartu. Zorionez, euskara batuak lagundu

du gure hizkuntza eraikitzen, horretan ari gara. Horretaz ohartzea funtsezkoa da euskararen menpeko egoera ulertzeko.

**J. C. IRIART:** *Belarriprest* eta *Ahobizi* aipatu ditu oixtitan Marie Andréek. Solaskideen irudimenetik segituz, iruditzen zait hizlari bizien artean elebitasuna ez dela arras orekatua. Ene adibidea hartuko dut, nik gaur erraten ari naizen guztia frantsesez erranen banu, ene espresioak zorrotzagoak izanen ziren, ene hiztegia aberatsagoa, ene ideiak argikiago emanen nituzke. Ez dut uste kasu bakarra naizenik. Iruditzen zait, elebidunen artean, *ahobizi*-en artean ere, badaudela frantsesa hobeki menperatzen dutenak euskara baino. Horrek erran nahi du –bi hizkuntza ez badira hein berean menperatzen– errazki lerratzen garela frantsesera. Horrek badu bere ondorioa egun guziz erabiltzen dugun euskararen kalitatean. Oro har, eskolan ikasten duten gazteengan so egiten badugu, terminalera arte irakaskuntza segitzen dutenak elebidunak dira, baina horien artean ere biziki gutxi atxikitzen dute bi hizkuntzen hein edo maila bera. Hau da, gero eta nonbre handiagoan ikasten dute ikasleek euskaraz, baina ez nahi eta behar-ko genukeen nonbrean euskararen kalitatea ziurtatzeko. Beraz, oro har, pobretu gara.

**■ Azkenik, instituzioetako ordezkariak, hautetsiak, ikasten edota erabiltzen dute euskara?**

**J. C. IRIART:** Hautetsiak besteak bezala dira, horretan ez da diferentzia izpirik. Hasteko, hautetsiak egun guziz gurutzatzen dira herritarrekin, gizarteko partaideak dira, baina euskararekiko lotura aski pertsonala da, eta praktikatzen dute edo ez, axola badute edo ez dute. Gizarteko beste herrikideak bezalakoak dira.



## Publikotik galdezka

■ **Eneko, zuk Euskal Elkargoaren mugak edota zailtasunak azpimarratu dituzu. Non egin beharko litzateke indar gehiago?**

**E. BIDE GAIN:** Zorigaitzez, galdera hori egiten da, baina ez da aterabiderik aurkitu. Nire ustez, momentuz, kontzientzia hartzea beharrezkoa da, eta euskara hizkuntza ofiziala izango balitz ere, ez litzateke salbatua izango. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ere hori ageri da. Eskualde oso euskaldunetan salbu, euskara ez da osasuntsua, anitzek irakaskuntza amaitu ondoren mozten dute harremana euskararekin. Orduan, aterabidea da, edo izan liteke, lan mundua euskalduntzea, ekonomia euskalduntzea, egunero bizi eremuak euskalduntzea, hori da lehentasunezkoa. Adibidez, lan mundua euskalduntzeko apustua egingo bagenu, horrek erraztuko litzuzke harremanak, elkar trukaketa Hegoaldeko eta Iparraldeko enpresen artean, horrek erraztuko luke euskalduntzea, baita aisialdia ere euskaraz bizitzea. Izanik ere, ekonomia neurri batean aisialdiari lotua baitago gaur egun.

**M. A. OURET:** Ados. Irakaskuntzan ere anitz gauza gehiago egiten ahal da. Arriskuak aipatu dituzu zuk Mikel [Asurmendi]. Egia da, erakundeek anitz egin dutela azken urteetan, kasik zerotik partitu ginen, eta agerikoak dira eman diren pausoak, baina arriskua dago pentsatzeko pauso gehiago fite eta aise eginen direla. Duela urte batzuk *Lurralde kontratua* sinatu zen estatuarekin, kolektibitate hainbatek izenpetua. Euskarak ere ukan zuen bere partea. Euskararen bilana egin zen, euskararen beharrak zehaztu ziren, ikastola eta eskola berrien sustapena azkartzea deliberatu zen, besteak beste.

Euskal Konfederazioak –UNESKOK atera agiriaren arabera– hizkuntza-aren sailkapena argitaratu zuen: euskarak bizirik atxikitzeko biztanleen %25 hitzun behar du. Azken inkestek diotenaren arabera, Ipar Euskal Herrian %21ean gaude. Emendatzen



**EUSKARAK BIZIRIK  
ATXIKITZEKO  
BIZITANLEEN %25  
HIZTUN BEHAR DU.  
AZKEN INKESTEK  
DIOTENAREN ARABERA  
IPAR EUSKAL HERRIAN  
%21EAN GAUDE**

**MARIE ANDRÉE OURET**

ari da, goiti ari da. Baina oraino ez gaude behar den heinean. Hots, nahiz eta aldeko seinaleak badiren, euskara lanjerrean dago. Euskal Konfederazioak erran zuen euskararen eremua azkartu behar dela, eskola elebidun gehiago ireki behar dela, haur guztiek beharko luketela ikasi euskaraz, jasaten duen beherakadari ekiteko. Adibidez, haur guztiek Seaskaren ereduari ikasiko balute, biztanleen %35 hitzunen heinera heldu gintezke. Errealiki nahi baldin bada euskararen egoerari aurre egin, eskolatan oraino ere anitz dago egiteko. Konparazionera, Korsikan ere horretan ari dira, eskola publiko guztiak nahi litzuzkete elebidunak izatea. Beraz, guk ere

badugu oraino neurri gehiago hartzea eta urratsak ematen segitzea.

■ **Euskaraz egiteko arnas-guneak eta toki informalak antolatzea beharrezkoa ikusten duzue?**

**E. BIDE GAIN:** Ipar Euskal Herrian ez ba erraz horiek antolatzea, bereziki itsasaldean. Esaterako, zailtasun handiak daude zerbitzu-gunetan edo komertzioetan. Nire gustuko, bitarteko berriak sortu behar dira, sakeleko telefonoetan aplikazioak, adibidez. Horien bidez, euskaldunak zein ostatu edo kanpinetan aurkitu ditzakegun erraztu daiteke, gisa hartara, euskaldunon mapa eguneratu genezake. Gure inguruan, euskaraz egingo digutela jakiteak lagundu liezaiguke euskaraz bizitzen egunero. Horrek, agian, lagunduko luke euskaldunon komunikazioa indartzen.





## ENEKO GORRI

ANGELU, 1983

Euskaltzale militantea da. Mintzalasai elkarteko kidea. Biarrizko Herriko Etxeko euskara teknikaria da.

ETORKIZUNeko  
HIZKUNTZA POLITIKA  
PUBLIKOAK GURE  
MOBILIZAZIOAREN  
ARABERAKOAK IZAN  
DIRA. ESKAERA  
ETA PRESIO SOZIALA  
GILTZA DIRA



# “Gazte belaunaldia inspirazio iturria da: desobedientzia eta euskararen aldeko errebeldia lantzen ditu”

## ENEKO GORRI

**M**intzalasai festibalaren 8. edizioa prestatzeko 90 laguntzailek lan egin dute irailaren asteburuetan. Asteleheneretik ostiralera 500 lagunek parte hartu dute euskarazko aktibitateetan, euskaraz bizi nahi duen jendea badela frogatuz. Bizki pozik gaude erantzunarekin. Aurtengo ekimena baikorra izan da. Euskararen aldeko nahikaria eta atxikimendua badela erakutsi digu.

*Mintzalasai*-ren hiru ezaugarri azpimarratu nahi nituzke:

**URBANOA EDO HIRIKOIA.** BAB hiri-eremuan (Baiona-Angelu-Biarritz) kokatua izan baita, Euskararen etorkizuna bertan jokatzeko da neurria handi batean eta erdaldun gune horiek jostaleku estrategiko bihurtu nahi ditugu.

**HIBRIDOA.** Ekimenak administrazioaren baliabideak eta elkarregintzaren ausardia uztartuz funtzionatzen du, mugimendu euskaltzalea berrasmatuz eta lankidetzaren sinergiak azkartuz.

**HIPERAKTIBOA.** Iraileko festibalaz gain, beste ekimen asko antolatu dugu: *Mintzalasai* ikastetxeetan sartze garaian eskoletako haurrei euskararen birmurgiltzeko aukerak eskaintzeko eta *Mintzala-*

*sai* euskaltegietan ekainean, ikasurte bukaeran euskara ikasten duten 550 helduei momentu pribilegiatuak eskaintzeko. Testuingurua zein den ez dugu ahanzten: hiru hiri hauetan, haurren %80ak ez du euskara ikasten ez etxean ez eta eskolan. Gure aldetik, molde xume eta konkretuan ekintzak obratzen segitzen dugu.

*Euskara Ipar Euskal Herrian, Euskal Elkargoa sortu ondoren mahai-inguruan Euskalgintza zaharra eta berria* aipatu da. Beti izan da dikotomia markatzeko joera bat: euskalgintza instituzionala *versus* euskalgintza soziala, zaharra *versus* berria, sektoriala *versus* integrala... *Mintzalasai* ekimenaren sustatzaileoi Euskal Herrian zerbaiten atarian gaude-la iruditzen zaigu, zerbait berria sortzen ari dela.

Nik uste, 60-70eko hamarkadetan aritu zirenen eta gaur egun ari garenen artean lotura eta segida dagoela. Besteak beste, gau-eskolen, ikastolen eta hedabideen -euskal irratia eta abar- lanaren poderioz heldu gara 2010eko hamarkada honetara, eta zinez, denbora biziki laburrean sekulako aitzinamenduak izan dira euskararen alorrean. Eta, beharbada, hor dago beste dikotomia bat: aldaketa hauen lekuko izan den aitzinda-



MINTZALASAI / LAC MARION

Mintzalasai festivalaren 8. edizioa prestatzeko 90 laguntzailek lan egin dute irailaren asteburuetan.

rien belaunaldia alde batetik, luzaz haizeak kontra borrokatu dena eta beste aldetik oinordekoen belaunaldi gazteagoa, euskara naturalago bizi duena, lorpen soziala ez balitz bezala. Ikastolak etxeko garajetik prefabrikatuetara pasa dira eta ondotik hormigoizko paretetatik azken teknologietako eraikinetara. Euskararen aldeko *manifak* gas negargarriekin bukatzen ziren duela 30 urte; gaur egun senatari frantsesten diskurtsoekin...

Bistan da, euskalgintzan ari gare-nok uste dugu hala ere, euskarak ez duela behar duen ahalmen guztia. Erraten da egungo gazteek ez dutela aurreko belaunaldiek zuten jite bera, alta, egungo gazte-gazteak, azken belaunaldiak, ez dira ahulagoak horregatik: gaztetxeak, musika festivalak, bertso saioak, libertimenduak, kabalkadak... horren lekuko dira. Ez dugu ezkor izan behar. Nire garaian, ezkerreko mugimendu iraultzailean hizkuntza nagusia frantsesa zen, eta gaur egun gaz-

teak beren eguneroko bizimodua euskaraz egiten dute molde aski naturalean. Oinordeko azken belaunaldia inspirazio iturria da: desobedientzia eta euskararen aldeko errebeldia lantzen ditu. Nik biziki interesgarria hatzematen dut. Eguzker, karrikatik etxera sartzean bai-

kor izan nahi dut, ekintzaile izateko gauzak aldatzeko gaitasuna dugula sinetsi behar dugulako.

Azkenik, hauxe gehitu nahi dut: etorkizuneko hizkuntza politika publikoak gure mobilizazioaren araberakoak izan dira. Eskatera eta presio soziala giltza dira. ●



MINTZALASAI / LAC MARION

AZOKAN  
SALGAI!  
15€

+4€  
BIDALKETA GASTUAK




# XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



## Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako **zazpi ekosistema** eta **42 animalia** ezagutuko ditugu. Karta hauekin **5 jolas ezberdin** egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.



**Edukiak**  
Iñaki Sanz Azkue  
Biologoa

**Ikuspegi pedagogikoa**  
Lore Erriondo  
EHUko irakaslea

**Marrazkiak**  
Eñaut Aiertzaguena

